

Diru Sarrerak bermatzeko errentaren legeak gizarte prestazioen murrizketak kontsolidatzen ditu

Azterketa Bulegoa
2022ko abenduak 6



www.ela.eus

ELA

EUSKAL SINDIKATUA

AURKIBIDEA

| | |
|-------------------------------------|-----|
| Sarrera | 3 |
| Izapideetan egindako aldaketak..... | 3-4 |
| Ondorioak | 5-6 |
| Proposamenak..... | 6 |

SARRERA

Eusko Legebiltzarraren osoko bilkurak abenduaren 22an eztabaidatuko du Diru sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legearen proiektua, Eusko Jaurlaritzak maiatzean aurkeztutakoa. ELAk proiektu horren balorazioa egin zuen, zeina erabat koherentea zen gizarte prestazioen arloan azken urteetan hartutako politikekin: eskubideak murriztea (eta, ondorioz, gastua), prestazio jasotzaileak fiskalizatzea eta estigmatizatzea, eta EAEn pobreziaren arloan dagoen errealitatea kontuan ez hartzea.

Azaroaren 29an onartu zen Lan eta Enplegu Batzordean irizpena, lege proiektuaren edukia apenas aldatu gabe. Deigarriena Elkarrekin Podemosek eta Eusko Jaurlaritzak Lege honen inguruan lortutako akordioa da, baita EH Bilduren abstentzioa ere. Aurrerago ikusiko dugunez, akordioak orain arteko murrizketak kontsolidatzen ditu, aldaketa nabarmenik gabe. Oso urrun dago mugimendu sozial eta sindikalek planteatutako aldarrikapenetatik. Aldarrikapen horiek, besteak beste, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak aurkeztutako pobreziaren eta gizarte bazterketaren aurkako ILPan islatzen dira.

IZAPIDEETAN EGINDAKO ALDAKETAK

Lege-proiektuari dagokionez aldatu diren bi gai nagusiak Errenta Bermatuaren zenbatekoa eta DSBE jasotzeko adina dira.

1. Bermatutako errentaren zenbatekoa

Gai horri buruz adostutakoa baloratzeko, honako erreferentzia hauek hartu behar dira kontuan:

- 2022an, pertsona bakar batentzako (pentsioduna ez denarentzako) DSBEa 727,41 eurokoa da.

- Lege proiektuak, aurten onartzekoa zenak, 737 eurotan ezartzen zuen kopuru hori.
- Eusko Jaurlaritzaren 2023rako aurrekontu proiektuak 799 eurotan finkatzen du DSBE horren zenbatekoa (proiektuak 2022rako ezartzen zuena baino % 8,4 gehiago, aurtengo KPIa baino zertxobait handiagoa, urte arteko % 6,8an baitago, azaroko adierazle aurreratuaren arabera, eta, beraz, hobekuntza txiki bat baino ez dakar termino errealetan).

a) 2023rako zenbatekoa KPIaren arabera eguneratuko da, bestelako igoerarik gabe

Bada, Elkarrekin Podemosek, akordioa publiko egitean, izenbatekoa datorren urtean 803 eurokoa izango dela iragarri zuen, 2023rako aurrekontuen lege proiektuak ezartzen duena baino 4 euro handiagoa.

Azken batean, datorren urterako DSBEaren zenbatekoa lege proiektuan ezarritakoaren baliokidea da, 2022ko KPIarekin eguneratzen baita.

b) Etorkizunari begira, Jaurlaritzaren esku uzten da urteko aurrekontuetan zenbatekoa finkatzea

Elkarrekin Podemosek aditzera eman duenez, diru sarrerak bermatzeko errenta pobrezia mugaren gainetik egongo da. Errealitatetik urrun, egia esan.

E-P zuzenketaren idazketak aurrekontuetan ekitaldi bakoitzean erabakitzen denaren esku uzten du zenbatekoa (lege proiektuan jasotzen zen bezala), eta pobrezia-tasari egiten dio erreferentzia, eta hori, itxuraz, positiboa izan daiteke, nahiz eta horri buruzko konpromiso espliziturik ez egon.

Baina hori ez da horrela. Zuzenketaren justifikazioak hainbat aukera aipatzen ditu pobrezia arriskuaren tasa hori nola kalkulatzeko. Horietako bat errenta nazional ertainaren % 60 da. Beste biak askoz anbiguoagoak dira. Eta, beti ere, Espainiako estatu osoaren erreferentziak dira.

Argi dago, horrela, Eusko Jaurlaritzak urtero nahi duen zenbatekoa finkatu ahal izango duela, erreferentzia anbiguo horietan oinarrituz.

c) EAEko pobrezia tasa Espainiako pobrezia tasaren aldean.

Baina kontua are okerragoa da. Pobrezia muga kontzeptu erlatiboak dira. Oro har, lurralde aberatsenen pobrezia muga lurralde pobretuenena baino handiagoa dela esan daiteke. Horregatik, deigarria eta kritikagarria da Elkarrekin Podemosek Estatuko esparrua pobrezia mugaren atalasea definitzen duen esparrutzat hartzea.

Horrekin adierazi nahi duguna da, pobrezia muga errenta ertainaren % 60an ezartzea ontzat ematen badugu (batez besteko errenta biztanleriaren erdia azpitik eta beste erdia gainetik uzten duen balioa da), haren balioa asko aldatzen dela Espainiako estatuaz edo EAEz ari bagara. Zehazki, EAEko batez besteko errentaren % 60 1.056 eurokoa da. Hala ere, Espainiako batez besteko errentaren % 60 803 eurokoa da. Hortaz, EAEko pobrezia arriskuaren tasa jaso beharko litzateke, Espainiako baino 255 euro handiagoa baita.

d) LGSren erreferentzia pobrezia arriskuaren tasarekin ordeztea, murrizketak finkatzea baino ez du helburu.

Egungo legeak LGSaren % 88an ezartzen du DSBEaren zenbatekoa (1.026,7 €gaur egun). Aldiz, lege proiektuak eta Elkarrekin Podemosekin egindako akordioak DSBEaren eta LGSren arteko harremana ezabatzen du. Horrela, izaera iraunkorra ematen zaie azken urteetan hilerok aplikatzen diren 300 euro inguruko murrizketei.

2. DSBEaren aitortpena 18 urtetik aurrera

Nahiz eta aditzera eman adin pertsona adin nagusi orok jaso ahal izango duela prestazioa, funtsean berriazko baldintzak ezartzen dira, nahiz eta ezkututzen saiatu, eta honako hauek dira:

- 18 eta 29 urte bitartean, urtebeteko bizitza independentea frogatu behar da.
- 18 eta 23 urte bitartean, gainera, aldezturik Lanbiden urtebete altan eman izana eskatzen da (edo lanean egotea edo egon izana eta gainerako denbora Lanbiden).

Beraz, argi dago 29 urtetik beherakoei baldintza gehigarriak eskatzen zaizkiela, eta are gehiago 23 urtetik beherakoei; beraz, lege aldaketaren benetako eragina iragarritakoa baino txikiagoa izango da.

ONDORIOAK

1. Akordioa DSBE eskuratzeko zenbatekoari eta adinari buruzkoa da. Salatzekoa da Elkarrekin Podemosek, egindako propaganda kanpaina onartezina, bileretan aztertutako hainbat eduki, hala nola Lanbideren baliabideak zabaltzea edo hartzaileen gaineko kontrola ezabatzea, lorpen moduan azaldu baititu.

2. 2008an baino 73.000 pertsona gehiago daude pobrezia arriskuan. Horrek argi eta garbi erakusten du gizarte prestazioen sistema ez dela nahikoa.

EAPN sareak 2021ean egin berri duen txostenaren datuen arabera, EAEn 270.100 pertsona zeuden pobrezia-arriskuan, hau da, 2008an baino % 37 gehiago, eta urte horretatik aurrera pobrezia etengabe hazi da. Datuak ikusita, argi dago DSBEaren zenbatekoaren murrizketek zerikusi handia dutela igoera horrekin. Beraz, premiazkoa da murrizketa horiek lehengoratzeko.

3. Gizarte prestazioen sistema egokia izatea funtsezko elementua da gizarte kohesiorako eta pertsonak erdigunean jartzeko.

Beharrezkoa da DSBEaren estaldura hobetzea, pobrezia egoeretara ahalik eta gehien iritsi dadin, betiere gure herrialdeko pobrezia muga erreferentziatzat hartuta. Prestazioak murrizten joan badira orain lege proiektuarekin, DSBEaren murrizketak kontsolidatuko dira, EPOa desagertuko da (Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Ekonomikoak ordeztuko du, eta EPOa jasotzen duten gehienek ezin izango dute prestazioa jaso), eta GLLak eskubide bat ez izaten jarraituko dira.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak 150 milioi euro inguru aurreztuko ditu gastuan, eta 2023an Espainiako gobernuak finantzatuko dio, Bizitzeko Gutxieneko Diru sarreraren bidez. Aurrezte hori ez da prestazio sistema hobetzera bideratu nahi.

4. EHren eskubide sozialen Gutunean planteatutako proposamenetako bat bera ere ez dago jasota ez lege proiektuan, ez Elkarrekin Podemosek Jaurlaritzarekin lortutako akordioan. Horregatik salatu du ELAk akordio hori, baita EH Bilduren abstentzioa ere.

5. Gizarte-prestazioen sistemaren defizitak eta benetako kudeaketa-arazoak oraindik ere jorratu gabe daude. Lan prekarietatea murrizten duten eta irregulartasun egoerekin amaitzen duten neurriak ezarri behar dira. Eusko Jaurlaritzak lan prekarietatea bultzatzen du, DSBEaren zenbatekoa murrizteko politikaren bidez. Bermatutako diru sarreraren maila baxuak lan abusurako eta prekarietatearen hedapenerako baliabiderik onena da.

PROPOSAMENAK

Egoera horren aurrean,

ELAk honako hau erreklamatzeko du:

1. Aurkeztutako lege proiektua erretiratzea, 2008ko Legea berehala aplikatzea, murrizketarik gabe, eta gizarte-prestazioen sistemaren gabeziak hobetzeko gizarte eztabaida abiaraztea. Eztabaida hori izan behar du abiapuntu Gizarte Eskubideen Agiriaren pobrezia eta gizarte bazterkeriaren aurkako ILPk, 50.000 sinadura baino gehiagoren bermea duena.
2. Ezker politikoari eskatzen dio bere jarrera aldatzeko eta legea aurrez aurre gaitzesteko, eta 2008ko legea hobetuko duten alternatibak mahai gainean jartzeko. Legea onartzeak eta/edo babesteak pobrezia handitzen jarraituko duela eta pentsiodunena bezalako errealitate bidegabeak kronifikatu egingo direla esan nahi du.



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA